HONDARRIBIKO PIRATAK



Gaur goizean Hondarribiko hondartzan itsasontzi handi bat agertu da. Itsasontzia oso handia eta zaharra zen. Barrutik lau pirata atera dira eta denbora makina bat erabiltzen ari direla kontatu dute.

Denboran bidaiatzen ari dira eta Coronavirusarekin gertatu den guztia jakiterakoan beste garai batera bidaiatzea erabaki dute, etorkizunera joango dira. Bueltatzean gure etorkizunean zer gertatuko den kontatuko digute... Beraien zain egongo gara!

ZER?	**Piratak Hondarribin agertu direla.**
NORI?	**Piratei**
NOIZ?	**Gaur goizean**
NON?	**Hondarribiko ondartzan**

TXAKURRAK ETA KATUAK ETSAIAK DIRA?

Maiatzarean 10ean Madrilen katu batek zuhaitz baten gainean txoritxo bat ikusi zuen. Txoritxoa hartzeko nahian zuhaitzera igo zen baina oso altua zenez gero ez zekien nola jaitsi. Izan ere, katuak oso eskalatzaile onak dira baina gero jaistea gehiago kostatzen zaie.



Kale horretatik neska gazte bat bere txakurrarekin paseatzen ari zela katua ikusi zuen. Igo nahi zuen baina oso altua zenez ezin zuen eta bere txakurrak eskalatu zuen. Katua hasieran ez zen fidatzen baina azkeneak txakurrarenlaguntzarekin jaitsi zen.

Jendea harrituta gelditu zen eta kazetari hurbildu ziren animaliei argazkiak ateratzera.

ZER?	
NORI?	
NOIZ?	
NON?	

EGURALDIA ZORATU DA

Atzo Errenteriako eguraldia zoratu egin zen. Gipuzkoa osoan oso eguraldi ona egiten zuen, eguzkia eta 30 gradu baina Errenterian elurra mara-mara erortzen ari zen. Errenteriako biztanleek elurrarekin jolasteko aukera izan zuten, elurrezko panpinak egin zituzten! Baina kotxea hartu, metro batzuk gidatu eta Donostian sartu bezain laister eguzkia ateratzen zen.



Mundu osoko kazetari eta zientzalari fenomeno hau aztertzera etorri dira, Errenteriaren eguraldi zoroa mundu osoko telebistetan agertuko da!

ZER?	
NORI?	
NOIZ?	
NON?	

ZIRKO IBILTARIA DONOSTIAN

Hurrengo larunbatean munduko zirkurik handiena Donostian egongo da. Zirko honetan hainbat akrobata, pailaso eta malabarista egongo dira. Munduko zirko dibertigarriena dela esaten dute, gainera parte hartzen duten akrobatek suarekin ikuskizun izugarriak egiten dituzte.



Honez gain, munduko mago ospetsuena parte hartzen du "Magicius" jauna. Mundu osoan ospetsua izan da esku azkarrenak dituelako, bere trikimailuak asmatzea oso zaila da. Zirko honetan ez dituzu animalirik aurkituko, animalien eskubideak babesten dituztelako.

Albiste hau Donostiako biztanleei interesgarria egingo zaie.

ZER?	
NORI?	
NOIZ?	
NON?	